

**Aldez aurreko kontsulta publikoaren izandako parte hartzeari buruz txostena, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak hartutako 2018ko maiatzaren 18ko akordioari buruz. Akordio horren bidez erabaki zen Etxeko laguntza zerbitzuaren araudi berria egiteko proposamenaren aldez aurreko kontsulta Publikoa egitea.**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua ezartzen duenez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten arau berriaren eraginpean gerta litezkeen subjektu eta ordezkariak handiena duten erakundeek honako hauei buruz:

- A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- B) Arau horren onespeneraren premia eta egokitasuna.
- C) Arauaren helburuak.
- D) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatuak eta ez-erregulatuak.

Legea betez, aldez aurreko kontsulta publikoa araudi berria egiteko Hernaniko Udaleko web orrian argitaratu zen, hain zuzen: <http://www.hernani.eus/eu/jende-aurrean-dauden-espeditentak>

Horregatik Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak Etxeko laguntza zerbitzuaren araudi berria egiteko aldez aurreko kontsulta egin zuen 2018ko maiatzaren 29tik ekainaren 18 arte. Hernaniko Udaleko web orrian argitaratu zen aldez aurreko kontsulta publikoa eta [zerbitzusozialak@hernani.eus](mailto:zerbitzusozialak@hernani.eus) posta elektronikoa eman zen ekarpenak ahal egiteko. Epea amaitu zen ekarpenik jaso gabe.

Hernani, 2018ko uztailaren 26a

Jose Leon Etxart Oartzabal  
Kudeatzailea